

Astekaria

BARREN

Oporrak baserri giroan



e!

ELKARTEA

ZEZENBIL)E

O C O  
auto-eskola

San Frantzisko 43,
z. 74 27 20

EEBBetako Futbol Mundiala

INTERIORES

- SUKALDE ETA BAINUAK
- PROIEKTU ETA ERREFORMAK
- DEKORAZIOA ERREGALUAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

Andoni Tellabide S.L.

ITURGINTZA

- Berogailuak • Suteen aurkako instalakuntzak
- Gas instalakuntzak

Azpilgoeta 19.
☎ 75 50 62 MENDARO

V''

ELGOIBAR

Fotero

OKINDEGIK OPIILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

GARAY

HARATEGIA URDAITEGIA

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

gr

Mundiala. Futbolaren espresio nagusia. Jadanik bukatzeaz dugu futbolak gure herrian eta mundu guztian daukan indarra erakusten duen lehiaketa garrantzitsu hau.

Ikaragarrikoa da futbolak gure gizartean duen eragina. Milioika pertsona partidu baten atzetik, kaleak hutsik, eguneroko bizitzan lasaiak eta hezituak suposatzen diren pertsonak zeharo eroturik demasekoak botatzen telebistaren aurrean, goizean goiz jaiki behar den jende nekaturia gaueko hiruak arte partiduak ikusten eta alboan emakumeak haserre futbola ikustea obligazioa delako. Soziologikoki ez da izango erraza aztertzea fenomeno guzti hau, baina nik entrenatzaile batek esan zuen eta famatua bihurtu den esaldi batekin laburtuko nuke: "Futbol es futbol".

Esan bezala, pastel eder honi azkenengo ginda falta zaio, finala eta, noski, irabazlea. Baina balantze bat egitekotan hau positiboa izango litzateke. Partidu politak ikusteko aukera, golak aspaldian ez bezala ugari eta, batez ere, intentsitatea eta emozioa partidu guztietan. Jadanik ez da gelditzen talde errazik eta Korea, Nijeria edo Marokori irabazteko estuasun handiak pasa behar dira, eta hori, oso ona da futbolarentzat. Zelai guztiak beteta ikusi ditugu eta epaileak, nahiz eta denetarik egon, beti bezala erruak burutu dituzte, baina badirudi gogorkeria ezabatzeko gai izan direla.

Agian, izar berri baten falta somatu izan da nahiz eta Romariok, Bebetok, Baggiok, Hagik eta Stoichkov-ek beraien kalitatea erakutsi. Beharbada finalaurre gogorragoen falta ikusten da, baina esan bezala, futbola horrelakoa da. Zein izango den irabazlea? Uste dut Brasil, baina horretarako San Pedro Tifosia orain arte goitik Italiari eman dion laguntza alde batera utzi beharko du.

Bukatzeke, Maradonari buruz zerbait esan nahi nuke. Injustizia handi bat egin dela berarekin. Doping-ean positiboa eman arren, ez dut pentsatzen drogatuta egin zenik eta hala ere, ez zitzaion eman inolako aukerarik defendatzeko. Maradona futboleant handiena izan da eta ez zuen bukaera hori merezi. Chao, Diego.



JON GALARRAGA

DEBA KALEA 12

reforma(, 6.1. 20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK

OBRAK OROKORREAN

TIRO RIRO

San Frantzisko, 54. 74 13 86

|| arral u a || duzu Mundiala? || aboltorik?



JOSE PEREZ

39 urte, fruta saltzailea

Bai, Espainiar selekzioaren partiduak jarraitu ditut, baina ez dela oso ondo aritu iruditu zait. Irabazteko faboritua Brasil dela uste dut.



FELI CASADO

51 urte, etxekoandrea

Ez zait futbola gustatzen, baina espainiarrek jokatzen badute nahiago dut beraiek irabaztea. Ezagutzen dudak bakarrik Julen da, neskatxoek gustukoa da, ez?



PABLO ZUBIAURRE

51 urte, montatzailea


Oso osorik ez baina bastante. Espainiak partidu onak ein ditxu, eta Argentina eta Brasilen aldetik gehixuo espero naban. Irabazi? Brasilek.



ANDER ERRASTI

22 urte, ikaslea

Partidu batzuk ikusi ditxut. Espainiari bonbo gehixegi ernan diote, azkenian ezertarako. Gehixen gustatu jatan selekzioa Irlanda izan da.



IMANOL SANTOS

16 urte, ikaslea

Futbola ez jata gehixegi gustatzen baina Mundiala jarraitu dot. Espainiarren partiduak eta inportantienak ikusi ditxut. Brasilek irabaziko dau,



KARMELE GOROSTIZA

59 urte, etxekoandrea

Ia partidu guztiak ikusi ditut, batez ere Espainiak jokatu dituenak. Faboritua Brasil den arren nik uste dut Italiak irabaziko duela.

TXARRIDUNA

MAALAKO JAIETAKO AUZO AFARIA
Uztailak 23, larunbata, gaueko 9,30etan

MENUA: Piper beteak, Arrain zopa robaloa laban erreta, solomoa plantxan, trufa reinetarekin eta kafea.

Ardo berezi gorria eta beltza.

INEZNI: 2.800 pta.

/ZENAtX47VV TXARRIDUNA JATETXEA 74 04 90

Maria Urizar

ileapaindegi mixtoa

Errosario 9-1ezk.

☎ 74 44 89 ELGOIBAR



MTZ BIZICAR KIIDOAK

RDO ETA PATTARRA

PATATA SALMENTA

Etxerainoko banaketa

Errosario 18

74112 37

• Jai kartel lehiaketa

Eduardo Arrilla_gak eta Esmeralda Zapparolik egindako "Abuzutuaren 23a" izeneko lana izan da San Bartolome jaietako kartel lehiaketaren irabazlea, 40.000 ptako saria eskuratuko dutelarik. Akzesita Joseba Otae_gi elgoibartarrarentzat izan da "jai_giroan" izeneko lanagatik. Elgoibartar honek 10.000 ptako saria jasoko du.

■ 21 tona paper jaso dira Elgoiharren ekainean zehar

Ekainaren lehen paper eta kartoi kontenedoreak jarri zituztenetik, hilabete eskasean, 21 tona paper eta kartoi bildu ditu Deba Beheko Mankomunitateak. Herrian zehar 17 kontenedore handi eta 6 kontenedore txiki jarri ziren eta betetzen diren heinean hustu egiten dituzte. Ekainean zehar 5 aldiz hustu da kontenedore bakoitza batez ere puntu hauetan: Udaletxe aldameanean, King-Kong-ean, Plaza Txikian, Pedro Muguruzan eta Santa Anan. Proportzio honetan jarraituz gero, urtean 23 kilo pertsona bakoitzeko bilduko litzateke, Euskal Herriko batzbestekoaren_gainetik. Azkenik, Mankomunitateko arduradunek el_goibartarren jokaera ezin hobea dela azpimarratu nahi dute, dendetako kartoi orandik ere kontenedore berdeetara botatzen diren arren. Dena den, papera eta kartoiak erreziklatzen jarrai dezaten animatu nahi dituzte herritar guztiak.

■ EAJak antolatutako irteera

Elgoibarko EAJ-PNVk irteera bat antolatu du uztailearen 23rako. Goizean_goiz aterako da autobusa herritik eta Agustin Ibarrolak margotutako Oma basoan_e_gin_go da lehenengo_geldiunea. Kortezubin izan_go da bazkaria eta Santimamiñeko kobazuloak bisitatu eta_gero Butroiko gaztelura_e_gin_go da bisita. Informazio gehia_go nahi duenak 74 27 4ra dei dezake.

Ostiralean lehen pelikula Plazan



Udaleko ordezkariak eta On_garri Zine KIubeko kideak akordio batera heldu dira azkenean aire libreko gestioari buruz. On_garri osatzen dutenek eta Udaleko Kultur zinegotziek irizpide ezberdinak zituzten aire libreko zineari buruz eta aste honetara arte ez dira akordio batera iritsi. Udan, Ongarri arduratuko da Plazako zineaz eta da_goeneko aurreratu dituzte astebukaera honetan, hilaren 15ean eta 16n, eman_go

dituzten pelikulen izenak. Ostiralean "Aladdin" filmea eskainiko da eta larunbatean, "El pequeño Buda". Emankizuna gaueko 22,30ak aldera hasiko da, ilundu bezain pronto.

Aire Libreko zineaz_gain, irailetik aurrera zine klubarekin hasiko dira Ongarriko kideak Herriko Antzokian. Astean birritan_e_gon_go da zine kluba, ostegunetan eta ostiralefon, eta filme ez komertzialak eman_go dira.



Udaleko Euskara ZerblitZUakuztailean zehar urtero antolatzen dituen Udaleku irekietan San Pedrorra irteera egin zuten asteartean. Lau begirale eta 47 haur dabilta aurten udaleku irekietan, OHOk 2, 3, eta 4. mailako haurrak. Udaleku irekien helburua haurren artean eskolaz kanpo euskara bultzatzea da. Horretarako jolasak, irteerak, ibilaldiak etb. antolatzen dira.



San Pedro kaleko jaiak izan ziren joan den astebukaeran. Ostiralean izan zen txupinazoa, arratsaldeko 6,30ak aldera eta ospakizunak igandera arte luzatu ziren. Bitartean, ekintza mordo bat izan zen goizez, arratsaidez eta, nola ez, baita gauez ere. Ostiral gauean txerri harrapaketa izan bazen gazte eta nagusientzat, zapatu arratsaldea haurrentzako ekintzaz beterik egon zen. Hiruetan ireki zen haurrentzako parkea: zezen mekanikoa, gaztelu puzgarriak eta ohe elastikoak aurkitu zituzten bertara hurbildu ziren umeek. Eta txokolatea ere banatu zen, argazkian bistan denez. Basokada bat txokolate bero hartu eta bizkotxoak bertan bustiz zein baino zein gusturago ibili ziren haurrak.

■ Arartekoak Gazte Asanbladari erantzun dio

Arartekoak dio, Gazte Asanbladaren ponentzia "Gizarteaz" enpresara bidali zuela Elgoibarko Udalak eta bere jokaera zuzena izan dela. Irregularitasunik egon bada, enpresa da arduraduna, eta berau pribatua denez, Arartekoak ezin du hor eskurik sartu. Horregatik, Arartekoak Gazte Asanbladak bidalitako espedientea artxibatu egin du. Gazte Asanbladak Arartekoari erantzun dio, irregularitasunen ardura "Gizarteaz" enpresari leporatuz. "Gizarteaz" enpresa pribatua izanik, eta IGPn prozesuan herritarren poltsikoetatik ateratako 20 bat milioi pezeta gastatu direla kontutan izanda, norbaiten aurrean erantzun beharko duela uste du Gazte Asanbladak. IGPn arauetan Arartekoa azken arduraduna dela esaten da. Gazte Asanbladak gai honen inguruan Arartekoa ezkutuka dabilela uste du, "ez baitu inolako erantzunik ematen".

1894-1994
I KUIIÑA'az r!
MEN DEURREN A

Nazio bat gaire akomm

GEUREA IKURRIÑA

Atzo
gaur
eta
beti

**HERRI
BATASUNA**

Ane Ovejero:

"Natura pilla bat maitxe dot"

Ane Ovejero 19 urteko elgoibartarra da. 14 urte zituenean Greenpeace-ko bazkide egitea erabaki zuen, baita WWFkoa ere; azken hau animalien babeserako erakundea da. Ingeles filologiako ikasketak egiten ari da eta

etorkizunean Greenpeace-n lan egitea gustatuko litzaioke, bikoizle gisa edo. Ingurugiro mailan gure herrian oraindik nahikoa atzeratuta gabiltzala esan digu eta jendea kontzientziatzea asko kostatzen dela.

Noia sartu zinen Gre-enpeaceen?

Orain 5 urte, "Natura" aldizkarian irakurri naban informazioa eta apuntatzea erabaki naban.

Zer egiten duzu erakundearen barruan?

Nik batez ere, urtian ordaintzen dudak kuotarekin egiten dut aportazioa. Diru horrekin kanpainetarako laguntzen da, bidaltzen dituzten aldizkarietarako... Gero, nahi izanez gero, sar zaitezke boluntario bezela lanera, baina zaila da. Gehienbat, aldizkariak irakurtzea eta lagunak kontzientziatzen saiatzea da nire funtzioa.

- Zein da Greenpeace-ren filosofia?

- Hasi zanian itsasua eta hiria defendatzen zituen, antinuklearra zan. Gutxinaka bere "radioakzioa" zabalduz joan da, jendea kontzientziatzerarekin pasa delarik. Mundu mailan ematen diren diferentziak ere gutxiagotzen saiatzen da, Ipar eta Hegoaren artean ematen den diferentziaren aurka dago, gizartean gertatzen diren ekintzak ere salatzen ditu... Baina, batez ere, naturaren defentsan oinarritzen da. Politikarekin ez dauka zerikusirik. Ateratzen daben diru dana



"Jende askok modan dagoelako esaten du ekologista dela".

soziuena da eta ez dabe inolako subentziorik jasotzen. Munduan bost milioi sozio daude. Amerikan eta Dinarnarkan hasi zan eta gero zabaltzen jun zan. Mundu mailan hemen baino indar gehixo dauka.

- Zeintzu dira helburuak?

- Pilla bat. Hasteko, jendea kontzientziatzea energia alternatiboak azalduz, hainbeste min ez dabenak egiten. Bigarrenik, kutsaduraren kontrako edozein gauza, itsasoa, airea, errekek garbi mantentzeko, beste gauza ba-

tzuen artean enpresak behartu depuradorak ipin ditzaten. Baita munduko espezie guztien kontserbazioa ere, erosioaren aurka... Ekologiarekin zerikusia duen guztia, orokorrean.

- Ekologia modan al dago?

- Bai. Jende askok modan dagoelako esaten du ekologista dela eta benetan ez dabe sentitzen. Moda guztiak pasajeruak dira, baina egixetako ekologistak dianak geratuko dira eta hauek gauzak

aldatzeko zerbait egingo dabe.

Ba al dago mundua kontzientziatzeko posibilitaterik?

Hirugarren mundua deitzen dana adibidez ezin da kontzientzia: Amazonian egiten ari diana guk hemendik kritikau egiten dou baina hangoek bizitzeko egiten dabe guk kritikatzeko doguna, "deuda externa" delako hori piskat mozteko behintzat. Haueri lagundu egin beharko tzaieke. Bestalde, kontzientziatzeko edukazioa behar da. Eskoletan txikitatik erakutsi beharko tzateke natura maitatzen. Hala ere, gaur egun gero eta gehiago errekonozitzen da. Gobernnek, adibidez, "impacto ambiental" kontuan hartzen dabe zerbait egiterakoan, baina oraindik ez behar beste. Beste herrialde batzuetan garapena eta ekologia hernen baino hobeto daude lotuta.

Eguneroko bizitzan zer egin daiteke ekologiaren alde?

Pertsonen arabera dago baina lagunen artean adibidez kontzientzia sortzen saia gaitzke, familian ere... Baina txikitatik sartzen hasi behar da, bestela oso zaila da.

BELEN ARRIZABALAGA

/440T7AIS

Riledikuntza naturalari IVIburuzko hitzaldia

Datorren asteartean, uztailak 19, arratsaideko 6,30etan hitzaldi bat izango da Zaharren Biltokian. Gaia medikuntza naturala izango da eta hizlaria Maria Sol Saez naturopata. Besteak beste, elikaduraren bidez hainbat gaisotasun nola ebitatu daitezkeen azalduko du, hala nola, kolesterola edo tentsioa. Horrezaz gain, gaisotasunak sendatzeko belarren berri ere emango du. Bukaeran, tartetxo bat egongo da hurbiltzen den edonork bere dudak eta galderak azaltzeko Mari Soli.

eyreko monastegira eta imuYesako urtegira irteera

Zaharren Biltokiak egun bateko irteera antolatu du uztailaren 28rako. Goizean goiz Elgoibartik irten eta Nafarroarantz abiatuko da autobusa eta bertan, gosalduta eta gero, Leyreko monastegia ikusteko aukera paregabea izango da, Nafarrokao erregeen mausoleoa ezagutuz, besteak beste. Bazkal ostean dantzaldia izango da, baita zozketa txiki bat ere eta arratsalde partera Yesako urtegira bueltatxo bat emango da. Bidaiak, gosaria eta bazkaria ere barne, 995 ptako kostua dauka.



aueri ere iritsi zaie oporrak hartzeko garala. Uztailaren la arte fin-fin ibili ziren gure herriko nagusiak egunero ordu betez Joxean Hidalgok aginduen arabera gimnasia eginez. Pasodoblearen erritmoa jarraitzen dute, oso gustura gainera. Batetik osasunarentzat onuragarria denik ezin ukatu, ariketa fisikoak edozein adinetan laguntzen baitu, baina, horrezaz gain, taldeko kideen artean sortu den harremana ere oso berezia omen da; denbora pasatzera joaten dira, baina denbora hori ondo pasatzera. Hasi zirenetik hobekuntza igerriko zuten, ziur gainera, eta ez da atrebentzia handiegia izango datorren irailean ere guztiak Joxeanen aginduetara jartzeko desiatzen egongo direla esatea.

ESTEBAN ZUBIAURRE

"Pisuak fallatzek induraini, larregi dakaff



16 bat urte zituenean hasi zen Eibarren lanean. Bertara joateko erosi zuen bere lehenengo bizikleta. Zaletasunak bultzatuta hasi zen hara hona bueltaka, Donostian Peugeotaren ordezkaria zen Gometek Frantziatik bizikleta berri berria ekarri zion arte, "60 duro pagau naban". Lasterketa bat baino gehiago irabazi zituen Estebanek, halere, "txikitarik irabazi biharrian, zorrak itxen nitxun, dana neuk pagau bihar naban eta, biajiak eta dana". Gaur egun, 92 urte ditu. Esan digunez "Buelta Frantziara ikusi gabe ez naiz egun bat ere geratuko". Faboritorik?, "Indurainek irabaziko baleu, estimauko neuke nik, baina pisuak fallatzen dio hari, larrei daka".

- Lanera juteko hasi eta karrerak irabazten amaitxu zendun

- Lehenengo karrera Billafrankan irabazi naban ta gero beste batzuk Deban, Lekeitxion... Donostian Peugeotaren representaziva zakanak aindu ziazan sei errial kilometroko lehenengua ateratzen banaban, pezetia bigarren ateratzen banaban eta hirugarren ateratzen banaban errial bi. Baina ez zian ezer pagau. Esan zian egon zala Frantziako etxiakin eta harek esan ziola pezetia baino gehixao inori ezio-la pagatzen kilometroko.

- Hasieria ez zan onaz, beraz.

- Nik inori ez nion ezer esan baina Ormaetxea, Kristopian representaziva zaukana Eibarren, enterau in zan neri zer ein zian Gometek, ta esan zian, "hi, Gometek in dixana inda, harekin segitzeko ustia daukak?" Ezetz esan nion, ez naukala kontraturik einda ta "al buen postor" nauala. "Neuk emangoixat bizikleta berrixa, karrerakua, espeziala ta gainera pe-

zeta bi kilometroko, sei errial bigarren atera ez-kero ta beste bi hirugarren". Haretxekin hasi nitzan korrika.

- Ormaetxeakin hasi eta segi?

- Ez, ez naban suerterik euki. Elgoibarko karreran, San Migelen pintxazua euki naban Orduan bizildetian multiplikaziva kanbixatzeko aldapadia zauanian erroberiarri bueltia eman bihar jakon, 18ko piñoia ipini bihar jakon korritzeko ta 22kua aldapadak ixotzeko. Haura kanbixatzeko oin "ra" ein ta listo, ba lehen ez, lehen erroberiarri bueltia eman bihar

- Hor amaitxu al zan karrerla?

- Ez, Markinara ailegatzarakuan manibela itxuria ondo lotu be zakan bizikleta berrixak ta pelotia bezela jausi nitzan bidian.

- Badakit egunkarietan ere azaldu zinela inoiz.

- Bai, Billafrankako karrera irabazi nabanian. Bueltan estaziora irten zian alkatiak, Don Antonio, eskua ematera. "En hombros" ekarri nahi

ninduen kalia ta nik ez naban nahi, lotsatu itxen nitzan


- Soldadutzan ere lagundu zizun bizikletiak.

- Vitorixan ein naban. Nere aitxa zanak esan zian 5.000 ptako kuotia pagauko ziala 9 hilabete-ko soldautzia itxiarren. Bestela normala hiru urteko soldautzia itxia zan. Nere sargentua zanari gustau in jakon nere bizikletia. Behin esan zian nobixia zakala Vitorixatik sei kilometrorra ta aber lagako nion bizikletia nobixiana juteko. Nik baietz, ta berak ere neri zeoze eman nahi ziala ta esan zian barixako Hutzetik asteleheneko be-deratzirak arte libre nakala, inori permisirik eskatu be.

- Handik bueltan laga al zendun?

- Bai, handik bueltau ta Donostian izan zan behin Kanpeonato de España ta jun nitzan hara, trena ta pentsiva ta dana norberan boltsikotik pagau bihar zan orduan, ez zauan asoziaziorik. Ta karreran erten zian txa-

kur batek ta pedala okertu jatan ta erretirau biharra euki naban. Bueltau nitzan ezer irabazi be ta gainera zorrekina, Oin beste denbora batzuk dia, diru demasa irabazten da!



Aurtengo oporretan nora?

Urteroko zalantza: "zer egingo dugu aurtun, hondartzara ala mendira joango al gara? Edo herrian geratuko?" Behar bezalako opor batzuk igarotzeak eta hoietaz gozatzeak ez du derrigorrez lekuaren arabera izan behar. Norberak ze nolako jarrera duen, zein asmo

HONDARTZA

Itsasaldia gunerik egokiena da hipertentso eta kardiakoentzat. Gainera, itsasoko ur gazia tonikoa, deskongestiboa eta antiseptikoa da eta orbain efektuak ere baditu. Ur epela dagoen itsasaldia, mediterranean alde, adibidez, ezin hobea da erreumarako,

Itsas bazterreko pasiarak aholkatzen dira, olatuek hanketan jotzen eta zirkulazioa eragiten duten bitartean. Bainuak hamar minututik behar-koak eta, igeri egiteaz gain, ahal den heinean, ariketak ere egitea gomendatzen da.

Kostaldeko herrietan egon ohi da girorik animatuen, baita jendetza ugariena ere.

MENDIA

Paisaiaz gozatzea a-tesegin dutenentzat aholkatzen da. Ibilaldiak egitea gustoko dutenentzat, goizero aire garbia arnastea beharrezko duten hoientzat. Mendian lasaitasuna nabarmenagoa izan ohi da hondartzan baino. Biriketako eta

bronkioetako arazoak dituztenei komeni zaie, batez ere, mendia, bai eta hipotensioei ere. Irten aurretik, eguzkitako kremak hartzeaz gain, beharrezkoak dira zapatila eroso batzuk, arropa arina, txapela eta mapa bat, bidea ezagutzen ez denean behintzat.

BESTE BATZUEK

Euskadiko Kutzak, adibidez, lau egunetarako Eurodisneyra bidaia antolatu du. 65 urtetik gorako gipuzkoarrek izango dute joateko aukera. Txanda ezberdinak daude, irailaren 12an hasi eta urriaren 4ra bitartean. Prezioari dagokionean, 26.000/36.000 pta bitartean.

Kutzak ere bere alde-rik Jakan egonaldia batzuk eskaintzen ditu. Hamabost egun, pentsio osoko erregimenean eta 50.000 ptagatik. Erreumatismoa eta bestelako ondorio traumatikoak dituztenentzat badira hainbat

eta nola planteatzen dituen egunak, hoi arabera behar luke izan udarako sasoiaren gorabeherak ere. Oporrak pasatzeko era diferente asko daude, pertsonaren izaeraren, eta gustuen arabera egokitu behar dira. Ondo pasatzeko sekretua? Oporrak ondo aukeratzea.

aukera bainuetxe diferentetara joan ahal izateko.

Ecuador bidai agentziak irailetik aurrera 3. adinarentzat irteera bereziak antolatu ditu Canariar Irletara.

Halere, arrazoi bat edo beste dela eta herrian geratzen direnek ere badute zer egiterik. Trena doan dute, hartara, goizean goiz esnatu eta egun osoa pasatzera hor zehar joateko aukera parregabea dute. Edo herrian bertan ere baditugu paraje ugari eta ederrak ibiladi majoak egiteko, hala nola, Beraseta aldea, San Lorentzo, Arriaga aldea, San Pedro...

Batera joan edo beste- an geratu, ondo antolatu- z gero, edonon pasa ditzakegu gustuko opor- rarak. Azken finean, osasun- ak laguntzen badu eta animoak dirauen bitarte- an, ez dago aitzakiarik merezi bezalako uda ez pasatzeko.



> HONDARTZA:

- * *Komenigarria:* Hipertentsoentzat, kardiakoentzat, erreumatikoentzat eta ezematosoentzat.
- * *Ekintzak:* Goizean goiz eta iluntze aldera pasiarak itsasertzean. Igeriketa eta bestelako ariketak uretan.
- * *Prekautzioak:* azalean mantxak edo oreinak izanez gero, toki horietan eguzkirik ez hartu. Eguzkiaren aurrean denbora gutxi egin, egunero piska bat luzatuz. Uretan ere poliki-poliki sartu.
- * *Beharrezkoak:* Eguzkiaren aurrean babes- teko kremak, txapela eta sonbrila.

* MENDIA:

- * *Komenigarria:* tako eta bronkioetako arazoak dituztenentzat eta hipotentsoentzat.
- * *Ekintzak:* Pasiarak, paisaia, landareak eta animaliak ikusi eta ibil- laldi luzetxoagoak ohi- tuak daudenentzat.
- * *Prekautzioak:* eguzki- aren izpien radiazioa areagotu egiten da al- tuerarekin.
- *Beharrezkoak:* eguz- kitarako kremak, txape- la, mendian ibiltzeko arropa eta oinetako erosoak.



Ikusmena hirugarren adinean

Gaur egun hirugarren adina jubbilazioarekin erlazionatzen da. Mementu hau iristen denean, gure afizioak aurrera eramnateko aukera izaten dugu eta horretan jarduten, batez ere.

Adina gehitzearekin bat, ahalmen sensorial guztietan jeitsiera bat ematen da, horien artean, noski, ikusmenean ere bai. Hala ere, bizitzaz asko disfruta dezakegu oraindik ere. Gure begiek urteen eragina igertzen duten arren, arazo hauek gainditu ditzakegu era batera edo bestera. Hala nola:

- Presbisia eta ametropiak zuzentzeko optika oso egokia da.
- Begi egituraren gardentasun ezak sortzen dituen galerak ordezkatzeko, argi gehiago erabili dezakegu.
- Kataratak direla eta, galdu dugun ikusmena berreskuratzea nahi denean, zirujiara jo dezakegu.
- Glaukoma eta beste arazo batzuren aurrean, berriz, medizina daukagu.

Berrogeita bost urtetik aurrera, guztiok izaten ditugu konbergentzia arazoak, hau da, begiek ezin dute enfokatu ordurarte bezala, ez dute hainbeste erraztasun. Honela, ia guztiok behar izaten ditugu betaurrekoak, batzuek gerturako eta beste batzuek gerturako zein urrunerako; irakurtzen, teiebista ikusten edo ikusmena forzatzen ematen dugun denboraren arabera. Gaur egungo gizarteak gertuko ikusmenak etengabe erabiltzea eskatzen digu eta presbisia edo nekaturiko ikusmena lehenago azaltzen da. Ez dezagun ahaztu gizakion begiak, beste ugaztunenak bezala, urrunera begiratzeko egituratuak daudela. Aristotelesen garaian, nekaturiko ikusmena hirurogeita hamar urterekin azaltzen zen eta ez gaur egun



UZURI LARRAÑAGA
OPTIKO-OPTOMETRISTA

bezala, berrogeita bostekin. Hala ere, gaur egun ditugun lenteak lehenagokoak baino askoz hobek dira.

Era berean, urteetan aurrera goazen neurrian, argi gehiago behar izaten dugu. Berrogeita hamar urte dituen pertsona batek, hogeita bost dituen pertsona batek behar duen argi kantitate bikoitza behar du lan berdina egiteko. Gazte baten pupilaren diametroa 4,7 mm-takoa bada, laurogei urte dituen pertsona baten 2,3 mm-takoa da. Horregatik, betaurrekoak erabiltzeaz gain, batzuetan beharrezkoa izaten da argi gehigarri bat ere erabiltzea, batez ere gertuko lan bat egiterakoan, flexo bat, adibidez.

Eguzkiaren izpi ultramoreak kristalinoan biltzen dira, horregatik, denbora gehiegi egoten bagara eguzkitan, epe luzera kataratak azal daitezke. Bestalde, zenbait botiken eraginez (diabetesaren aurkakoak, tentsioa jeistekoak...) kristalinoa sentiberagoa bihurtzen da. Hau dela eta, oso komenigarria da eguzkitarako betaurrekoak erabiltzea, batez ere udan; honela izpi ultramoreak ez daitezten iritsi gure begietara.

Esandako guztiagatik, batez ere hirugarren adinarentzat, oso garrantzitsua da gutxienez bi urtetik behin errebisioak egitea, behar den graduazioa eramatea eta, kasu batzuetan, espezialistengana joatea.

Ez dezagun ahaztu begiak bizi guztirako direla eta gure esku dagoela begien bidez gure bizitza ka itatea hobetzea.

BUZTANA



Maria Lete

OSAGAIAK:

Buztana, gatza, olio, tipula, azenarioa, berakatz, piper berdea, okela salda, ardo zuria, ardo beltza eta whisky tanta bat.

PRESTAKETA:

"Lehenengo buztana gorritzen da. Gero, kipuliakin, zanaorixiakin, berakatzakin eta olixuakin saltsia itxen da. Piper berdian nik ez dixot botatzen saltsiari, nik botatzeiot gero, ze bestela saltsatan piperra erre itxen da ta saltsia belztu. Saltsia pasapuretik pasautu gero, buztana saltsatan ipintzeotengan irekitzen, orduan txikitzeot piperra ta bertara bota, han laga egosten. Orduan botatzeiot ardo zuria, beltza ta whisky tanta bat, bizitasup piska bat emoteko. Neuk ura bota biharrian, okela salda piskat ere botatzeiot. Dana kazuelara bota, tapau ta laga in arte. Inda dauanian, nahi baldin bada patatiakin, berdura batzuek, alkatxofak edo bestela penkak alberdau, idarrak... Patatia nik prejiduta ipintzen dot ze bigunaua izaten da, jugosua, egositxakua gogortu eitxen da. Baina hori norberan gustora."

Maritxu AraLterri

Jostuna



- **Zenbat urte daramazu jostun bezala?** > 39 urte.
- **Zein motako arropak egiten dituzu?** > Denetik piska bat, trajeak, soinekoak... Sasoian sasoikua.
- **Zer da zailena Ianbide honetan?** **1** Neretzat ondo ebakitzea, oso garrantzitsua da.
- **Zer da jendeak arropa batean bilatzen duenan** Kalitatea, batez ere.
- **Gustuko jostun bat?** **1** Italianoen estiloa asko gustatzen zait, Armani adibidez. Anõpa sinplea da eta kalean eramateko erraza.
- **Urteko zein garaitan izaten duzu lan gehien?**
Udaran, jendea gehiago irteten da kalera eta aldatzeko traje bat baino gehiago edukitzea gustatzen zaio.
- **Modaren alde ala kontra?**
D Ez dut moda bakarrik hartzen kontutan, pertsona bera nolakoa den oso garrantzitsua iruditzen zait, beraz, biak lotzen saiatzen naiz.
- **Jostuna ez izatekotan, zer?**
Beti gustatu izan zait hau, ez nuke aldatuko.
- **Minifalda ala gona luzea?** **1** Ez bata eta ez bestea, erdiko zerbait. Halere, minifalda asko gustatzen zait gazteentzat.
- **Gustuko kolore bat?**
Zurixa, baina mementu bakoitzerako kolore bat dago.
- **Elegante izateko formula?**
/ Norbera den bezalakoa izatea, bere izakera azaltzea.
- **Nor gustatuko litzaizuke jaztea?**
Paloma Lago, asko gustatzen zait bere estiloa.
- **Festa baterako zein kolore aukeratuko zenuke?**
Beltza, dudarik gabe. Eleganteena iruditzen zait.
- **Pajarita ala korbata?** **1** Korbata, klasikoagoa da.
- **Zein izango da datorren neguko tendentzia?**
Oraindik ez dakit, ez daukat inolako informaziorik.
- **Zer da zailagoa, norberarentzat ala besteentzat jostea?**
Norberarentzat. Beste batek probatzen duenean jantzia errazagoa da falloak zuzentzia.
- **Gizonezkoen jantziak ere egiten al dituzu?** > Ez.
- **Udaran oporrik bai?** > Bai, abuztuan.
- **Kanpora joateko asmorik?** > Saloura joango naiz, urtero bezela.

ISABEL, ANSOI,A

KONTUZI

Aholku bat gizakia
bihurtu gabe piztia
uda garaian kontuan izan
Pago, Hariztia
zuhaitzek dute guztia
aire garbi ta gaztia
birika gabe bizi beharra
ez al da gauza tristia. (BITAN)

Ez gaitezen izan babo
bitxia edo arraro
teilatuta hontan harriak jaurj
etxea akabo
sua ta ura badago
neurnan biak oparo
politak dira ez badirade
gu geran baino gehiago.



JOSU GUENETXEA

111TURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. s 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

pode /9~ 21eada, Scitecteivu:a
ARozTEGIA- OBRAK- IGELTSARITZA

Santa Klara, 10-1
Tel: 74 05 47

Etxea: Santa Ana, 30
Tel: 74 04 68

Ikurriñak ehun urte bete ditu

Arana Goiri anaiek diseinatu zuten ikurriña eta lehen aldiz uztailearen 14an zabaldu zen, "Euzkeldun Batzokija"ren irekiera ekitaldian. Aranatarrek Bizkaiko bandera moduan diseinatu zuten eta horregatik bere elementuek Bizkaiko armarrarian dute jatorria: hondo gorria, Bizkaiko armarrarena bezalakoa; San Andresen gurutze berdea, haritzaren hostoa berdea delako; eta gurutze zuria, Bizkaiko armarrarian ere agertzen dena. Ikurriñaren erabilera Euskal Herri osora zabaldu zen, batez ere Primo de Riveraren diktadura garaian. 1931n, Espainiako bigarren errepublikarekin batera euskaldun guztien bandera bihurtu zen baita Ipar Euskal Herriarena ere. 1936an, Eusko Jaurlaritzak bandera ofizialtzat hartu zuen. Gerrostean frankistek debekatu egin zuten eta bere erabilera klandestino bilakatu zen. Hegoaldean 1977an legeztatu zen berriz eta 1981ean Eusko Jaurlaritzak EAEko bandera ofizialtzat hartu zuen.



EIL 1977-1-19. Arrese zenak ikurriña jarri zuen lehen aldiz.

10 ztailaren 14an, osteguna, ospatu zen lehenengo ikurriña jarri zeneko 100. urteurrena. Aurretik plenoa egin zen eta bertan HBk, EAJk eta EAK mozio bat proposatu zuten. Hona hemen onartu ziren puntu ezberdinak:

- 1.- Erakunde guztietan ikurriña jartzea.
- 2.- Udaletxeko arkupeetan plaka oroigarri bat jartzea. Aipatu plakak ondoko idatzia izango du euskara hutsez: "**Lehenengo ikurriña jarri zeneko ehun urte hurrenean. Aurrekoen ezaugarritasun gisa eta askatasunarekin eta Euskadiko autogobernuarekin guk**

dugun konpromisua berrituz".(sic)

3.- Herritarrei dei etzitea etxeetako halkoietan ikurriña jar dezaten, ikurriaren ospakizunean parte har dezaten.

Herri Batasunak mozioari beste puntu batzuk gehitu zizkion, hala nola, Udaletxeko balkoian herriko bandera eta ikurriña bakarrik egotea eta jaietan ere ikurriña jartzea txupinazoarekin batera, ikurriñari ofizialtasuna emanez.

PSOEk aurkako botua eman zuen, ez ikurriñari omenaldia egitearen kontra dagoelako, Udaletxean ikurriña eta herriko bandera jartzea bakarrik legea-

ren aurkakoa delako baidarik. Udaletxean Espainiar bandera ere jarri behar da legez.

Plakako idazkia euskara hutsez jartzea edo gazteleraz ere idaztearen bueltan izan zen eztabaidarrik. HB eta EA euskara hutsez jartzearen alde azaldu ziren, kontuan izanik ikurriñari buruzko omenaldia dela eta ikurriña euskadunon sinboloa. EAJk hasera batean orain artean instituzio publikoetan agertu diren testu guztiak bi hizkuntzetan ida-

tziak izan direla esan zuen, horregatik zalantza. Halere, azkenean 12 botu eman ziren alde eta 2, PSOEnak, aurka.

Esan bezala ostegunean egin zitzaion omenaldia ikurriñari. Honela, lehenbizi ikurriña jarri zen Udaletxeko balkoian bai eta herritarren makina bat etxeetako leiho zein balkoietan ere. Ondoren, Haritz dantza taldeak Aurrekua dantzatu zuen.

Ikurriña Udaletxeko balkoian ikusi ahal izango da asteburu osoan zehar.

Jausoro Dorretxea (II)

- Arku zorrotzaren atezangoak kararrizko harlanduzkoak dira. Arkuak dorretxearen sarrera da eta harlanduzko bi dobla handiz eratua dago.
- Horma zabala zenez, ojibazko arku honek erdi puntuko beste arku bat zuen barrutik.
- Dorretxe barruan eta inguruan eginiko indusketa arkeologikoa egiterakoan hainbat materiale bildu zen: zazpi txanpon, zeramika pusketak, bai eta hezurrezko eta metalezko zenbait elementu ere.
- Dorretxearekin bat, Santa Klara komentuari egitura osatzen zuen errota ere agerian utzi dute indusketek. Horma sendoak zituen errota honek, neurri handiko harkoskoz eginak, eta harri naturalean zimentatuak zeuden zuzenean.
- Zurezko errota erabili zuten Jausoron ehortze lanak egiteko. Errota mugitzeko ura bi metro inguruko allueratik jausten zen Aizti edo Metalkua errekaetatik. Bertara sare konplexu baten bidez iristen zen ubidea.
- Sare honetako ubide batzuk isurbide gangadunera bideratzen diren bitartean, beste batzuk

errotarantz jotzen dute. Hauek bat eginik, beste ubide haundiago bat sortzen zuten, zuzenean Deba ibaian husten zena.

- Errota etxean, errota tresna egokitzeke harri naturalean zulatutako hutsunean lokatzezko betegarriz gainezka zegoen eta hainbat elementu aurkitu zuten bertan: zurezko errotaren hondakinak, zeramika eta larruzko pusketak...
 - Dorretxearen eta errotaren artean, ospitale deitutako gelak zeuden, kapeilauaren eta sindikaren bizileku bezala ezagutu ditugunak, alegia. Ospitalaren zorupean harkosko txikiek osaturiko zoladura agertu zen, dorretzeko fatxada nagusiko lerroaren eta errotatik ibairantz irteten zen ubidearen artean.
- E Monjen koroan bi hilobi azaldu ziren. Bat dorretxearen hormaren kontra eta bigarrena gezileihoaren parean. Azken honen barruan giza hezurdura osoa azaldu zen, oinak ezik,
- Dorretxearen sarrerako arku zorrotza desmontatu eta urbanizazio berrian berreraikitzeke asmoa dute.

PELLO ARRIETA



Sor Andrea (Pepita) Igartua (1913-1977)



O 28 urterekin, Karidadeko alaben lagundian sartu zen. Badajozetik La Coruñaiko apaiz etxera bidali zuten superiora bezala.

Berandua Bilboko La Casillako umezurtzen eskolara joan zen, 300 ume inguru zeuden. Eskola erabat baztertua zegoen eta Pepitak, Udaletxearen eta auzoko jendearen laguntza lortu zuen.

O Berarekin lanean aritu zen emakume hatek, Elgoibarrera lehen aldiz etortzean, trenetik jeitsi eta lurrari musu eman zion, hura Lur Santua zela esanez, "hemen jaio baita Sor Andrea Igartua".

O 1968an La Casillako txikiteroek omenaldi bat egin zioten, Umezurtzen eskolan eginiko lana eskertuz. Zilarrezko bandeja bat eskaini zioten opari gisa.


Pepitak, beste batzuekin batera, bultzatu zuen gaur egun Unben dagoen umezurtzen eskola berriaren eraikuntza.

Mutrikun hil zen 1977an.



ELEKTRONIKA
BIRE
ELEKTRAGAILUAK

Ubitarte 3 - Tel. 74 14 87 - ELGOIBAR



Salvador Celaya
ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

El a

Atletismoko monitore ikastaroa

Udal KiroI Zerbitzuak Deba Behea eta Garaiko Udaletako Euskara eta KiroI Zerbitzuekin bat eginda, atletismoko monitore titulua eskuratu ahal izateko ikastaroa antolatu du "Euskara eta kirola" programaren barruan. Irailaren 24tik urriaren 30era bitartean, larunbatetan goiz eta arratsaldean eta igandetan goizez bakarrik, izango da Mintxetako atletismo pistetan. Baldintza bakarra 17 urtetik gorakoa izatea da. Zenbait gai euskara hutsean emango dira, beste batzuk, ordea, gazteleraz. Izena emateko epea irekita dago irailaren 19ra arte. Izena emateko: Udaleko KiroI Zerbitzua (74 44 15).

Kainoi jeitsiera Guarako ibaietan

Udako kirol kanpainaren barruan hainbat ikastaro eta irteera burutzen ari dira. Irteeren kasuan iaz baino jende gutxiago animatu da parte hartzera. Dena dela, gogoia daukana garaiz dabil hilaren 22, 23, 24 eta 25ean, Guarako ibaietan kainoiak jeisteko egingo den irteerarako izena emateko. Hiru kainoi jeitsiko dira, Formigal, Gorgonehon eta Oseuros de Bales. Irten aurretik rapelatzen ikasteko ikastaroa emango da KiroIdegian. Beharrezkoa izango da igerian jakitea. Izena emateko Udaleko KiroI Zerbitzura jo edota 74 44 15 zenbakira deitu. Irteera 22an izango da arratsaldeko 8etan.



Jabier Uzuriaga:

"Lau urtian atera degu Espainiako kopia"

Zer da "tiro al helice"? Uso bizixe izan biharrin, usuen plastikozko imitaziva. "Tiro al vuelo" ere delten zaio. Usua garestixa da, bakotxa 800 pezetatan urtetzen da, eta heliziak, berriz, 30 duro balio ditxu. Gero, ekologisten asuntuak ere euki dau zerikusixa.

I Espainiako txapeldun geratu zara. - Bai, Arraten izan da kopa de España eta platerian bezela kopa de Europa eta del mundo egoten da. Suertia euki det. Ahalegina ein deu eta azkenian lortu det.

Beste titulurik? Ez. Munduko kopan lehen hamabosten artian sartu ginan. 200 platotik 194 egin genuzen. Helizian Madrilen ein izan det bilarren eta European hiru-garren.

I Noiztik datorkizu zaletasuna? - 13-14 urtekin hasitxa nao. Aurten tirada bakarra ein det, Arratekua.

Munduko kopara joango al zara? - Ez, nibela altua da eta badia bertara dedikatzen dianik. Helizian entrenau ein bihar da.

I Platera baino zailagoa al da helizea? - Askoz ere. Platerari eman ezkeru zatitxo bat edo beste puskatzen da baina helizian ez. Honek hiru aleta gorri ditxu, eta librau bihar da erdiko zurixe. Haura librau eta usue bezela, sare barrun jausi bihar da. Baina nola



arina dan, 3 gramo ditxu, haiziek eramaten deu kanpora. Gertu dauala eman bihar zaio.

I Zer behar du tiratzaile onak? - Berezkua, bistia eta errefleju ona. Eta danian moduan dirua. Deporte karua da, kartutxue... platue ere pagau ein bihar da eta entrenamenduetara jun ezkeru, ordubetian 4-5 mila pezeta momentuan jaten douz.

I Zure aurretik, euskaldunak izan dira Espainiako txapeldun, ezta? - Bai, Arrateko klubian lau urtian jarraixan daukagu kopia. Kopa haundixa Albazetetik ekarri zan eta irabazi dauan klubian geratzen da. Bost urtetan aterata, klubian geratzen da betirako kopa ori-jinala. Arraten lau urtian dao. ia hurrengo urtian beste bat ateratzen deunI

I Ehiza zalea? - Nere deportia da. Hasi nintzan beclako denporan ezin

zeralako mendixan eskopetiakin Urte asko ein ditxut ondo tiratzen. Baina Iehenengo mailan mantentzeko entrenamendu asko hihar da. Oinguan urte guztian tirada bat bera ere ein be nauan. Suertia...

- Adina: 45
- Zaletasunak: Basuen esku pelotia... herri kirolak.
- Hondartza ala mendia? Pagopian lasal ltsas baztarrian bainua hartu.
- Oporrak non? Bertan ahal bada.


KEMEN



Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZANKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA

San Bartolorne 25. Tel: 74 40 31



CRISTALERIA ELGOIBARRIESA C. B.

)11.44,Z,02,a, aill/14144,411
Ot4.6.

4KrAmp,(-nalt

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89

Eijgoibartarrak, bigarren Euskadiko BoIo Txapelketan



Elgoibarko San Migel taldeak, bigarren postua eskuratu du Euskadiko BoIo Txapelketan. Elgoibartarrak iaz ere txapel-dun-orde geratu ziren. Iaz baina, bizkaitarrek eta gipuzkoarrek bakarrik jokatu zuten txapelketa, eta aurtan, berriz, arabarrek ere harut dute parte. Arabarrek izugarri igo omen dute txapelketako maila. Datu adierazgarria da Araban 100 taldetik gora dagoela, eta Gipuzkoan, berriz, 20 inguru. Talde asko egoteaz gain, zaletu asko dago Araban. Gainera, jokua baino, kirola kontsideratzen

dute bolo-jokua.

Txapelketan beraz, arabarrak izan dira nagusi. Lehen postua Gasteizko Etxebarri taldeak Iortu zuen, hauen atzetik, berriz, elgoibartarrak. San Migeleko jokalaria oso pozik daude bigarren postuarekin, arabarrak gainditzea zaila izan bada, are zailagoa izan delako hango bolatoki-tan aritzea. Itxura denez, hango eta hemengo bolatokiak zeharo ezberdinak dira. San Migeleko taldea osatu dutenak: Jose Irusta, Agustin Irusta, Javier Osoro, Xabier Loiola eta Jon Ulazia.

Saskibaloia osatu da

Elgoiharrek badu Saskibaloia Elkarteak: Elgoibar Saskibaloia Taldea. Legalizatzeko tramiteak burutu ondoren elkarte moduan erregistratuko da Elgoibarko Saskibaloia Taldea. Martxan hasteko dirulaguntza eskatuko diote Diputazioari eta Udalari. Iaz zurrak da azken honek laguntza ernango diela. Momentuz, lokalik ez, Kiroldegian izango dute egoitza eta abuztuan entrenatzen hasiko dira, udazken aldera 2. mailan jokatzeko hasteko. Taldea osatzeko prest dauden 30 gazteren artean aukeraketa bat egingo dute, 12 lagun baita topea.

Canfranc-era irteera

Hilaren 23tik 25era bitartean, hiru egunetako irteera antolatu du Morkaiko Mendizale Elkarteak Canfranc-era. Lehen egunean eskaladari buruzko hastapen ikastaroa ernango da, bigarren egunean mendira irteera eta azken egunean rafting-a egiteko aukera izango da. Bazkideentzako prezioa 13.600 ptakoa izango da eta bazkide ez direnentzako, berriz, 15.00 pta. Prezioaren barne daude pentsio erdia hotelean, bidaia, tresneria eta monitoreak.

KIROL FLASHAK - KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK

Mendaroko 111. Pilota Txapelketwo

finalak joan den astebukaeran jokatu ziren. Hona hemen irabazle geratu zirenen izen-abizenak: paletaz, infantiletan, Idoia Arriola-Nerea Isasti nesketan eta Ander Zulaika-Jon Larrañaga mutiletan.

Nagusien kategorian, berriz, Esteban eta Iñaki Egaña anaiak. Eskuz, infantilen mailan, Jose M. Gareia eta Borja Rodriguez nagusitu dira. Azkenik, nagusien mailan Luis Mendikute eta Fernando Loiola geratu dira txapel-dun.



DEITEL C.B.:

Telefono bidez[®] rrrhij, zu herrL||zall||ea

Elgoibarko Lanbide Heziketako Institutuaren baitan gauzatutako ideia batetik abiatuta, zerbitzuen ataleko enpresa berri bat sortzeko lehen urratsak eman ziren iazko abenduan. Produktua zehaztu, aukerak baloratu eta pertsona jakinekin harremanetan jarri ondoren, DEITEL C.B. sortu da. Aurten eman ditu lehen urratsak, Udalak, 1NEMek eta Aldundiko Ekonomia Sailak emandako laguntza ezinbestekoa izan delarik.



• ri Rosa Arandak, Amaia Escudero eta Nerea Erkiagak osatzen dute Deitel.

Bideragarritasun ikerketa bat egin ondoren, bailararako interesgarria izan zitekeen zerbitzu berri bat emateko sortu zen DEITEL. Administraritzan lanetan jantzita bazeuden ere, komertzial arloko formazioa eman zitzaizkien langileei. Formazioa eman eta lokala jartzeaz gain, gastu anuntak ere Lanbide Heziketa Institutuak hartu ditu bere gain. Autoenpleguaren bidetik enpresa berri bat sortzekotan dabilzanentzat, adibide ezin hobea izan daiteke DEITEL.

Helburua, bezeroak gustura lagatzea

DEITEL gremio-etako enpresa eta profesional libereleki zuzendua dago. Hiru arlotan egin du lan: batetik, Telefonicarene linea digitalizatuen bidez, telefono deiak jasotzeko aukera

ematen du. DEITELeko idazkari batek egingo luke lan hori, enpresariari langile berri bat kontratazkeak dakarren arazoak ebizatzen zaizkiolarik. Bigarrenik, administrazio arloko zerbitzuak eramaten



ditu: fakturak, aurrekontuak, artxibo lanak, korrespondentzia, kontabilitatea eta BEZA, testuak makinaz pasatu, ... Honetaz gain, bilerak egiteko lokalak ere eskaintzen ditu. DEITELek bi arlo hauetan egiten du lan batez ere, beti ere, bezeroaren beharrei egokitutako zerbitzua ematen dutelarik. Hirugarrenik, etorkizunera begira hedatze bideetan dagoen teknika berri bat, "Telemarketing" a eskaintzen du. Telefonoaren bidez, bezero potentzialekin harremanetan jartzeko aukera ematen du, salmentak telefonoz egin daitezkeelarik, beharrezkoak ez diren bidaia eta deiak ebizatuz, eta bide batez bezero potentzialen zerrenda eginez.

EINSI ia ° IIKESAREINI FIET2CAL

- X 1ZENA: DEITEL C.B.
- X SORRERA URTEA: 1994
- X SORTZAILEAK: Amaia Escudero, Nerea Erkiaga eta Rosa Aranda.
- X ZUZENDARIA: Amaia Escudero
- X ENPRESA MOTA: "Comunidad de bienes"
- X IHARDUERA NAGUSIA: Marketing telefonikoa, atentzio telefonikoa, administrazio arloko zerbitzuak.
- LANGILE KOPURUA: 3
- X HELBIDEA: Arregitorre 2.
- X TELEFONOA: 74 44 47 FAXA: 74 44 78

Haritz: 20 urte dantzan

Haritz Euskal Dantzari Taldea jaio zenetik, 1974. urtean, hogei urte pasa dira dagoeneko. Urte hauetan dantza indartzea izan da helburua, eta lortu ere bai. Urtemuga ospatzeko astean zehar Juan Antonio Urbeltzek emandako soka dantzari buruzko hitzaldia entzuteko aukera izan da Kultur Etxean eta ostiral honetan argazki erakusketa inauguratuko da.



• C3 Soka-Dantza egiteko beharrezkoa da jendearen partaidetza.

Haritz Dantzari Taldeak 20. urteurrenaren ospakizunen artean argazki erakusketa antolatu du Kultur Etxean. Ostiral honetan, hilak 15, inauguratuko da erakusketa eta hilaren 30era arte egongo da zabalik. Igandetan ezik, egunero bisitatu ahal izango da erakustaretoa.

Dantza aspaldi errotu zen Elgoibarren. Errepublikara garaietan, 1931. urtean, Romualdo Andonegi zen herriko dantza maisua. Hurrengo urteko San Bartolome jaietako Txiki egunean, eguerdi aldera, Romualdo Andonegiren zuzendari-tzapean, lehendabiziko soka dantza dantzatu

zuten Arturo Zubiaurre eta Antonio Azpiatzuk. Ondorengo hamarkadan Pako Juaristik, Inazio Etxeberriak, Santi Kortabarriak, Bixente Zubiaurrek eta Iñaki Gorostizak jarraitu zuten urte batzuk lehenago hasitako tradizioarekin. Hurrengo urteetan Baltasar elkartearen izenpean egin zuten dantza. Beranduago Ongarri elkartearen eskutik Luis Gurrutxaga eta Jose Antonio Iriondok egingo dute dantza. 1964. urtean lehen aldiz dantza egiten da San Bartolome egunean; garaiko dantzariak Luis Gurrutxaga, Joxe Otaegi, Peli Uriguen eta

Roberto Monasterio ziren. Hurrengo urteetan, Elorra Dantza Taldearen baitan, Ixidor Solupek, Pedro Bergarak eta Manolo Santosek egingo dute dantza. Elgoibarko Izanak jarraituko du tradizioarekin, Jon Arrieta, Jose Alberto Ansola eta Sebas Larrañagaren partaidetzarekin. 1974an Haritz sortuko da, jaietan soka dantzarekin jarraitzeko asmoarekin. Azken garaiko dantzariak hauexek izan dira: Jose Luis Juaristi, Josu Mujika, Iñigo Leiaristi, Iñaki Gil, Javier Oñederra, Alberto Garzia, Jon Lizarralde eta Abel Iriondo.

Asegura ezazu zure zahartzaroa

HISPANIA  ZU RICH

C. Romera. Artekale z/g. v. 74 07 52

Hilean 6.000 pta. ordainduz

Adina	IRAUPENA		
	20 urte	25 urte	30 urte
35	4.965.963	8.710.671	14.655.252
40	4.994.462	8.807.680	
45	5.036.257		-

Hilean 12.000 pta. ordainduz

Adina	IRAUPENA		
	20 urte	25 urte	30 urte
35	9.939.926	17.421.342	29.310.504
40	9.988.924	17.615.360	-
45	10.072.514	-	-

Zer geratuko zait ubilatzen naizenean? Zeuk nahi duzunak Guk formula eskaintzen dizugu,

Ofto 4,144 edo «4» ofrott

Udako lehen eguzki printzek gure herri iluna argitzearekin batera, loreek udaberrian egin ohi duten bezala, gazteok ere liburuen artetik aldendu eta kanpora ateratzeko gogoia izaten dugu.


Horrela bada, bakoitzak erabaki ohi du, ahal duen neurrian behintzat, udaran zer egin behar duen. Ahal den neurrian diogu, loreek eguzkia eta ingurunea ikusteko oztopoak dituzten bezala, gazteok ere kanpora ateratzeko traba anitz izaten dugulako; **besteak beste**, ikasketetan emaitza txarrak, gurasoek lana egin beharra edota dirurik eza dira, horietako eragozpen batzuk.

Beraz, bada zenbait gazte arrazoi bat edo besterengatik herrian geratu ohi dena, eta gaurko honetan, pertsona hauekin solasaldi bat burutzea nahi izan dugu beren udako plana zein izango den ezagutzeko.

Alboko gazte hauek argi utzi digtite berrian gelditu arren badirela ongi pasatu ahal izateko aukerak, eta beraiek noski, posibilitate hauek ahalik eta hobetoen aprobetxatzen ahaleginduko dira, hortaz ziur egon gaitezke.

Amaitzeko irakurle, zauden tokian zaudela, oporrak pasako dituzun tokian igaroko dituzularik ere: **ONGI PASA!**

BBBKO 3. IVIAILAKO IKASLEAK



MAITANE LEIZABE

17 urte, ikaslea

Ni aurten ere Elgoibarren geldituko naiz, izan ere, nere gurasoei ez baitzaie kanpora irtetea gustatzen. Bestalde, nik ere nahiago dut bertan gelditzea, Euskal Herrian bezalako festak inon ez daudelako, alegia.

JUDITH LOIOLA

20 urte, ikaslea

Aurten Elgoibarren geldituko naiz ez datkadalako dirurik oporretara joateko. Dena dela, inguruko herrietako jaietara joateko esperantza daukat. Badakit, festarik festa ezin daitekeela pezetarik gabe ibili, baina kanpora joateko diru asko behar da.

Bestalde, abuztuan Gernikara joango naiz egun batzuk igarotzera, bertako jaiak ez baitira makalak.



1894-7-14 / 1994-7-14

Guztion ikurrhipen 100. urteurrenean



ZORIONAK!



GARAJEA ALOKATZEN
DA ganhara eta gutzi. Juan Qmugerza kalea. (Pista heltza)
11 74 07 10 Gaueko
7,30etatik 10etara.

Bainu geIarako **MANPARA,**
ARMAIRUA eta **ISPILUA**
saltzen ditut. Prezio oso
onean.
22 74 19 81 Ana Mari

MEND[KO plastikozko
Koflach Viva Sort**BOTA**
BATZUK saltzen ditut.
Zenbakia 8 1/2 - 9 (41-42)
12 04 44
Deitu eguerdiko 1,30-2,00
bitartean

MOUNTAIN-B[KE hat eta
URETAKO PAIPO bat
salgai, biak prezio merkean.
Tr. 74 26 91

Jende Famatuaren **ARGAZKI**
ORIGINALAK SALTZEN
DITUT: Julen Guerrero,
Alkiza, Sergio Dalma,
Alejandro Sanz, Amistades,
Duncan Du,... eta abar. Idatz
iezadazue eta eskatu zerrenda.
Sartu gutunazalcan 18 ptako 4
sello.
Helbidea: Igor Galo.
Zarauz Hirihidea 13 -3 ezi.
20 009 Donostia

KANPING KARRO BAT
ETA OSAGARRIAK saltzen
ditut. Egoera onean.
17 74 19 39 Mari Sol

Karabana bat sartzeko
GARAJE EDO LOKAL BAT
ALOKATU nahi dut.
Is 74 29 52
Gauetz 8-10 bitartean

LOKAL KOMERTZIAL
BAT EDO GARAJE BAT
saltzen da Urasandin.
Tr 74 21 86

GARAJE BAT alokatzen da
pista beltzean. Marraduna da.
a. 74 21 64

MOTOR bat daukat
SALTZEKO G.A.C. Onix 2.
900 km.
Gauetz, Setatik aurrera.
12. 74 29 32

GARAJE BAT alokatzen da
San Roke 5ean. Marraduna.
Tr 74 08 05

BROTHER TRIKOTOSA
BAT SALTZEN DUT.
Bigarren eskukoa.
Marrazkiak egiten ditu kolore
askorekin. Prezio merkea.
tr 74 18 51

SURF tahlá hat saltzen dut
20.000 ptatan, "Esus"
markakoa.
tr 74 07 61 Julen
(afal orduetatik aurrera.)

San Roke auzoan **GARAJE**
BAT alokatzeko daukat.
"ri 74 00 67 Martin



ENPRESARIALESEKO I.
KURTSOKO asignaturen
erreparosoa emango lukeen
pertsonek nahi genuke.
Tr 74 33 17

PARTIKULARRAK ematen
ditut euskaraz eta erdaraz.
OHO eta **BUP.**
tr 74 28 53 Alazne

Edozein **TESTU MOTA**
ORDENAGAILUZ
PASATZEN da eta
"Currieulum Vitac"ak egiten
dira.
tr 74 44 47

BBB eta **ITHlko FISIKA**
ETA MATEMATIKAKO
KLASEAK ematen ditut,
Euskaraz eta erdaraz.
Er 74 23 01 Jokin

FRANTSES KLASE
INTENTSIBOAK ematen
ditut. Uztailean zehar.
Tr 74 04 59 Jacqueline.
Setatik aurrera deitu.

Klase partikularrak ematen
ditut. Matematikak, kosteak
eta kontabilitatea orokorrean.
Ekainean eta uztailean.
27 74 21 65 Jabi



PISU BAT ALOKATZEKO
daukat Institutu ondoan.
Irakasleentzat aproposa.
gela, sala, sukaIdeá eta 2
bainu)
Tr 86 11 92

PISU BAT ALOKATZEN
DUT CAMBRILSen.
Uztailaren 2. hamahostaldia
eta ahuztua.
19 27 33
Deitu 20,00etatik aurrera,

PISU BAT daukat salgai
Ermuaranbiden.
17 74 27 12

ETXE BAT SALTZEN dugu
Pedro Muguruzan. Egoera
oso onean eta guttiz
amuehlatua. Bigarren pisua.
74 08 57

BUNGALOW BAT
ALOKATZEN DUT Santa
Polako hondartzako lehen
ilaran. Ekaina. uztaila, iraila.
74 27 02 Ana

APARTAMENTSU BAT
DAUKAT BENIDORM-en
alokatzeko moduan. Levanteko
hondartzako lehen ilaran.
Igerilekua eta aparkalekua.
Lahadora eta aire girotua.
s- 74 16 57 / 11 32 15

PISU BA'r daukat alokatzeko
ALCOCEBER-en
(Castellon). Uztailean.
Tr 74 21 86 Maria



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak..... 461111
Txanda hartzeko..... 743354
Planning ■ 742950
Alkoholiko Anonimook..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurulze Gorria 743864
Mendaroko Ospitala 756264
Drogomenpekotasun Z 741008
Odol Emaileak 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak..... 740442
PESA (Eibar)..... 112131
Taxi Geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
Kirol Zerbitzua 744415
Kultura Zerbitzua ■ 742158
Mendaroko Udala ... 756100
Ongizate zerbitzua ■ 743736
Uclaletxeci 741050
Udaitzctingoa 741394

BESTELAKOAK

Caritas 740142
IMI ■ 741196
Kontsumo Bulegoa .. 743088
Liburutegia 743525
Musika Eskola 742145
Minketa ■ 744315
Polikirolclegia 741361
Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia 740526

I KASTETXEAK

Herri eskola ■ 740879
I.M.H. ■ 744132
Institutua 74 02 67
Ikastola ■ 744441
L.H.I..... 74 44 80
Pilar Ikastetxen 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN ■ 74 41 12
El Diario Vasco ■ 74140 73
El Mundo ■ 11 85 01
74 22 67
El Correo Espatiol .. 74 10 82
Egin 11 84 21
Deia 74 11 57
Zazpiki ■ 74 34 74

15 OSTIRALA

19,00 ARGAZKI ERAKUSKETA
Gaia: Soka Dantza Elgoibarren.
✓ Kultur Etxean.
Hilaren 30era arte.
Antolatzailea: Haritz Dantza Taldea.
Igandeetan itxita.

22,35 ZINEA
"Aladdin"
✓ Plaza Handian.
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

LARUNBATA

10,00 FUTBOL JAIALDIA
✓ Mintxetan
Antolatzailea: C.D. Elgoibar K.E.
Egun guztian zehar.
22,35 ZINEA
"El pequeria Buda"
17 Plaza Handian.
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

IGANDEA

09,00 ARRANTZA TXAPELKETA
✓ Beduan (Zumaia).
Antolatzailea: La Union.

OSTIRALA

22,35 ZINEA
"AUximo Riesgo"
✓ Plaza Handian.
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba.

@.]

YilnaLnEDLUI:

16, larunbata: Bidasolo
17, igandea: Bidasolo
18, astelehena: Etxeberria
19, asteartea: Etxeberria
20, asteazkena: Etxeberria
21, osteguna: Etxeberria
22, ostirala: Etxeberria

10, igandea: BOUTIQUE DEL PAN

MAALAKO JAIK

22, 5511E1g1L4

9,00: Jaien hasera txafliu jaurtiketarekin.
10,00: Meza Maalako elizan.
17,00: Kalejira buruhandiekin.
19,00: Haurrentzako joku • herrikoiak.
22,30: Erromeria Gelatxo taldearekin.

GEILAGt 23, PARUNIE

21,30: Afari herrikoia.
23,30: Erromeria Gelatxo taldearekin.

NILAK 24, IGANDEA

17,00: Kalejira buruhandiekin.
19,00: Haurrentzako joku herrikoiak.
22,30: Erromeria Gelatxoren eskutik.
Jarraian, txafliu jaurtiketa jaien amaiera iragarritz.

ivfte .1einelea giaea PUija ~:aft 0,30~

5 OSTIRALA

"Aladdin"

Produktorea:
W. Disney

16 LARUNBATA

"PelueS® losiM"

Zuzendaria:
B. Bertolueei

22 OSTIRALA

"Maximo riesgo"

Zuzendaria:
R. Harlin

23 LARUNBATA

1006 901159050

Zuzendaria:
S. Seagal

29 OSTIRALA

uf,Ims riu/d8 '9819ri

EUG@Ofi^{ej}

Zuzendaria:
K. Branagh

30 LARUNBATA

"©gp@REE,0"u

Zuzendaria:
W. Hi11



San Martin Plaza z/g
v 76 13 42 / 43
BERGARA

EZ ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZAK

- E E.G.A. MAILA
- SAKONTZE I ETA II MAILA
- PSIKOMOTRIZITATEA
- GERONTOLOGIA
- PSIKO-SOZIALEAN MASTERRA

ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZAK

- SARRERA IKASTAROA
- ZUZENRIDEA
- GEOGRAFIA ETA HISTORIA
- ® HISPANIAR FILOLOGIA
- EKONOMI ZIENTZIAK
- ENPRESAL ZIENTZIAK
- D1 FISIKA ZIENTZIAK
- MATEMATIKA ZIENTZIAK
- SOZIOLOGIA
- PSIKOLOGIA
- HEZKUNTZ ZIENTZIAK

AURTENGO BERRIKUNTZAK


- GESTIO INFORMATIKA (3 URTE)
- III SISTEMEN INFORMATIKA (3 URTE)

Lehenengo aidiz matrikulatu nahi duenak, aurreinskripzioa egin beharko du uztailaren 29a baino lehen. Behin eskaera onartu ondoren, matrikula egin beharko da irailaren 20tik urriaren 17ra bitartean.

I. UNIK.0 ERRETRPTU LaifflaTfl

OINARRIAK:

- Elgoibarren jaio edo bizi direnentzat.
- Erretratuak koloretan zein zuri-beltzear izan daitezke. Neurria, berriz, 9x13 zmkoa gutxienez.
 - Bakoitzak *nahi* beste erretratu aurkez ditzake.
 - Erretratu polit eta bitxiak sarituko ditugu.
 - Epaimahaia BARRENEk jarriko du eta bere erabakia apelaez:na izango da.
 - Partaide bakoitzak erretratu guztiak sobre handi batean sartuko ditu. Erretratu bakoitzak izenburu bat eraman beharko du. Sobre handiaren barruan beste txiki bat sartu behar da. Txikiaren azalean erretratuen izenburuak idatzi behar dira. Barruan, berriz, izen-abizenak, adina eta telefonoa. Baldintza hauek betetzen ez dituzten *lanak* baztertu egingo dira automatikoki.
 - Erretratuak helbide honetara ekarri edo bida:i behar dira:
BARREN astekaria
"I. Udako Erretratu Lehiaketa"
Nafarroa Plaza, z/g.
20870 ELGOIBAR
 - Erretratuak aurkezteko azken eguna irailaren 9a izango da.
 - Antolatzailea: BARREN astekaria.



GENERALI ASEGURUAK

"RONKINA" Aitor Eizagirre. Santa Ana 20. Tel. 74 41 01



Golf GTI. Ezin kendu burutik.



Autos Eibar, S.A. Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 E1BAR